

9.- TURKIA



Turkia, izatez, Asia da baiña geroago ta geiago urreratzen da Europa'ra eta emen laterriak sortu daben alkartera be sartzeko eskaria eginda dauko eta bideak artzen diardu. Baldintza gaitxak bete bearko dauz emengo demokrazia edo erri-agintaritza onartzeko. Gaiñera endaz be bellegiak dira.

Turkiak bere barruan daukaz milloiak kurdoak eta ez da gauza erreza laterri barruan olako etnia bategaz bakean bizi izatea. Kurdoak, gaiñera, ez dagoz guztiak Turkia'n. Laterri batzuren artean zatituta dagoz.

Frantze baiño askoz aundiagoa da Turkia eta Ararat bere mendi nagusia be Mont Blank baiño askoz aundiagoa da. Noe'ren kutzak uriola-ostean lurra artu bear izan ebanean, mendi onetan artu eban, Bibliak diñoanez.

1926n. urtera arte berea eban Turkia'k Konstantinopla edo Estanbul deritxon uria, erromatarren Bizantzio.

Uri au zazpi menditxuren gaiñean dago, mezkitez beterik.

Gaur ez da uri au Turkia'ren uriburua, baiña salerosketarako garrantzi aundia dauka, Lurrarte Itxasoaren eta Itxaso Baltzaren artean dagoalako, Bosforo ta Dardanelos itxas-estuak bitarte dirala.

Kanpotar asko joaten da ango azokara itxas-ontzi aundietan.

Uriburua gaur Ankara da, geroago ta aundiagoa izaten doan uria, erdi basamortu baten barruan egon arren, uri orlegia ta barria da.

Turkia'k edesti jakingaria ta ospetsua dauka. Antxe jazo zan gudariz beterik egoan Troia'ko zaldiaren jazokunea.

Anatolia basamortua igaroten joiazala, egarriz il ziran kurutzadetan gudari asko, baiña oraintsuago Frantze'ko gudariak irabazle urten ziran lenengo gerrate aundian.

OLAZAR'tar Martin'ek